

# JOSE MARI USANDIZAGA

Otskaitar moldalari Donostiarra-ri.

**A**LBISTARİYEN bidez jakiñik arki gera zure otseztizketa izan dala Bzikai-buru edo Bilboon osoro zorion aundipean chalokatua.

¡Zer atsegintansun aundi muga gabetakaren jabe egiñ zan gure biyotza au jakitera irichi zanian!

¿Nola : zerizkiyon berak, Donostiar bat izatia ainbesterañoko zoriontsua atzerriyan, baldiñ seaskako lagun edo senideak iñiltsu igaro badute guztiya?

Udu-berriyan egun zoro lasayak izan oi diranian, loreak pizkortu oi diran, bezela, piñtu da Gipuzkoatarren biyotza, eta batez ere Donostiarrena, zure egintza goikidatsuaren otsaunditzeaz.

Mindu arki gera orreratu ez geranak zure otseztizketa ikusi gabeaz, eziñ joanak mendean artuak geundelako, bañan biyotza-ren mogidazko aginduz bazirudiyen or arki giñala eskuchaplanak chaloka urratuaz.

¿Nola liteke gure mingaña  
egon itz gabe ta mutu,  
baldiñ biyotza bazaigu posez  
chingarrak zabaltzez sutu?  
arrigarriya litzake baldiñ  
balei itsasun lurtu,  
amoriyorik eziñ iñola  
biyotz indartsuan urtu,  
bañan egintza zure berriya  
chit ondo dezu neurtu.

Egiyak bide zuzen bat dubela dakigun bezela, jakitera irichi gera zure erritar maite eta euskaldun jatorrak, chit gora Jar-

goitu dezula, beñere bear diña maitatzen ez degun Ama Euskara zure egintzu goitsuarekiñi; beragatik baderitzot zure aita, biyotzeko maitasun ugaritzez, arkiko dala gaur, pul, pul, pul, iturburu bat ura zortzez bezela. ¿Nola ez bada, baldiñ beria bazaitu?

¡Zer egun atsegintsuak diran berarentzat! Luza zayezkatzu bada zorion ugariyak zure guraso maitiai, eta zuk jaso ditzazu ugariyaguak, iduki ditzazun beti, kuñun maitagarritzat, zure kol-koko epelian oroigarri aunditzat, eta ondo baderitzazu, barka tu errenkada abekiñ utsegiterik egiten badute Z.<sup>e</sup> E.<sup>a</sup> M.<sup>en</sup> D.<sup>en</sup> E.<sup>un.=</sup> Juan Ignacio Uranga, J. Adrián de Loyarte, Julio Zabala Uzcudun, Juan Zabala Gainza, Felipe Casal, Modesto de Arámburu, José Ayes-tarán, José M. Goenys, José de Elizondo, Toribio Múgica, Antonino Ezponda, José Berra, Pedro Insausti, Ramón Guelbenzu, José María Galán, Bruno Olazábal, Silverio Tolosa, Ascensio Aizpúrrua, Manuel Arámburu, Antonio Minondo, José Artola, José Guiroy, José Gam-boa Arriaga, Benito Larrandia, Lorenzo Larrandia, Blas Tolosa, Anto-nio M. Baroja, Joaquín M. Baroja, Lúcas Zulaica, Manuel M.<sup>a</sup> Aram-berri, Manuel Uranga, Pablo Casal, Francisco Aguirre, Francisco de Ubillos, Manuel de Arratibel, Juan Landaberea, Luis Garmendia, José M.<sup>a</sup> de Aróstegui, Luis Martínez, Doroteo de Azkue, Javier de Olasagasti, Imaz tar Norberto, José de Pastor, Miguel Ormazábal, Sebastián Ugarte, Eduardo García, Domingo Arrezigor, Damián Zabaleta, Carlos Pérez Iñarra, Armando Larzábal, Luis Iraola, Sebastián Gurruchaga, José Marino Arrieta Garín, Angel González, José Mendi-luce, Francisco Mendiluce, Miguel Arregui, Vicente Arangoa, Pedro Irisarri, Valentín M. Baroja, Luis Erquicia, Javier Florez, Miguel Arregui é Igarzábal, José Múgica, Ramón Zapirain, Eusebio Muguerza, F. López Alén.

